

ZUMARRAGA / Irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina martxan dago berriro

Aurreko astean hasi zen liburutegian, eta bihar Iker Diazen ikuskizuna izango dute bigarren mailako eskolaumeek

Idoia Luzuriaga

Liburutegiak berriro ere ekin dio irakurketa sustatzeko kanpainari. Haurrengan zaletasun hori pizteko asmoz, eta batez ere liburutegia era atseginean ezagutu dezaten, ipuin kontaketa saioak antolatu dira. Aurten ipuin kontalari berritzaileak ekarri dituzte. Horrela, aurreko astean Maite Arrese izan zen arduraduna, Marilurrek 5.722.630 ipuin dakizki emanaldiarekin. Saio horiek Zumarragako hiru ikastetxeetako lehenengo mailako haurrei zuzenduta zeuden.

Jardunaldiek bihar eta hilaren 10ean izango dute jarraipena. Iker Diaz antzezleak musika izango du lagun. Diazek Kontu-kontari, kontu-kantari saioa eskainiko die bigarren mailako haurrei. Ipuinak musika alaiekin eta abesti orijinalekin janzten dira.

Esperientzia handiko aktore horrek ahotsarekin jokutzen du pertsonaia desberdinak eraikitzeko. Abestiak Carlos Fregtman musikari, idazle eta psikoterapeuta ezagunak idatzi, konposatu eta moldatuak dira.

Saioa hasi aurretik haurrek liburutegia zer den, zertarako den eta hango baliabideak ezagutzeko aukera dute, liburuzainak emandako azalpen batzuen bidez. Lourdes Alberdi arduradunaren arabera, haurrak oso gustura etortzen dira saio hauetara, eta era atseginean ezagutzen dute liburutegia. Ondorioei dagokienez eskolaume batzuk berehala joaten direla gurasoekin aipatu du: Beste zenbaitentzat saioarekin bukatzen da dena.

Kanpaina aspaldi jarri zen martxan liburutegian, eta orain arte egindakoaz balorazio positiboa egiten dute arduradunek. Haurrei zuzendutako ekintzez gain, aurten helduentzat ipuinak kontatzeko ikastaroa antolatu dute. Erantzuna ona izan zen, baina gainera jendea oso gustura gelditu zen, jarraikortasuna eskatuz. Eskaera ikusita, beste saio batzuk antolatzeke aukera aztertuko dute. Ipuin kontaketa saioak goizez egiten dituztenez, bihar eta azaroaren 10ean liburutegia ez dute jendearentzat hamabiak arte irekiko.